



Beasaingo Udala

ESP. KODEA. 2023HIBO0125	
EXPEDIENTEA	HIRIGINTZA SAILEKO EXPEDIENTE POLTSA
TITULARRA	BEASAINGO UDALA
TOKIA	BEASAIN

LANKIDETZARAKO HITZARMEN-ESPARRUA

Donostian, 2023ko maiatzaren 17an.

BILDU DIRA

Alde batetik:

Mugikortasun konektatu, kooperatibo eta autonomoaren euskal zentroa Elkartea - Basque Connected, Cooperative and Automated Mobility Center (BasqueCCAM) (aurrerantzean, «**BasqueCCAM**»), G10576072 zenbakiko IFZ eta helbide soziala Donostian duena (Miramongo Parke Teknologikoa, Mikeletegi pasealekua 71, 3. solairua), egintza honetan Álvaro Arrue Lobera jaunak behar bezala ordezkaturik (NAN: 72975107-V), BasqueCCAM elkartearen ordezkari fisikoa den aldetik, Enrique García-Jalón de la Lama notarioaren aurrean emandako eskrituraren arabera.

Bestetik, Beasaingo Udala (aurrerantzean, Erakunde Laguntzailea), P2002100B zenbakiko IFZ duena, Leire Artola Ugalde alkateak ordezkaturik (2020ko abenduaren 22ko osoko bilkuran izendatu zuten).

Aurrerantzean, BasqueCCAM eta Erakunde Laguntzailea batera izendatzeko «**Alderdiak**» hitza erabiliko da, eta horietako bakoitza izendatzeko, hala dagokionean, «**Alderdia**» hitza.

Alderdiek, zein bere eskumena baliatuz, agiri hau hitzartzeko behar den lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horretarako, askatasunez eta ados jarrita, honako hau

ADIERAZI DUTE

- BasqueCCAM irabazi-asmorik gabeko elkarte bat dela, eta mugikortasunaren industria (automobilgintza, autobusa, trena, etab.) sustatzea duela helburu; hala, ikerketako, garapeneko eta berrikuntzako ekosistema bat eskaintzen du



Beasaingo Udala

mugikortasun konektatu, kooperatibo eta autonomorako teknologiak eta konponbideak sustatzeko. Bereziki, hauek dira elkartearen xedeak:

- Lurraldea mugikortasun berria ikertu, garatu eta baliozkotzeko funtsezko lurralde gisa sustatzea, mugez gaindiko eskualde gisa duen kokapen ezin hobe ustiatuz.
 - Mugikortasun segurua eta jasangarria garatzen lagunduko duten teknologien eta zerbitzuen alde egitea.
 - Ekosistema publiko-pribatu bat sortzea, etorkizuneko mugikortasunerako estrategia berriak bultzatzeko.
 - Automobilgintzaren industria sustatzea, haren bilakaera bultzatzeko eta Mugikortasun Elektriko Konektatu eta Autonomoaren erronka berrietara egokitzeko ekosistema egokia eskainiz.
- II. Erakunde Laguntzaileak ezinbesteko gaikuntza-eragile gisa jarduten du, eta laguntza ematen dio BasqueCCAM erakundeari, CCAMaren arloko probak eta baliozkotzeak egiteko ezaugarri bereizgarri eta garrantzitsuak dituen agertoki gisa, mugikortasunaren eta hiri- eta landa-inguruneekin lotutako erabilera-kasuen ikuspegi nagusiari dagokionez, bai eta 2023-2028 aldirako Beasaingo Hiri Mugikortasunerako Plan Jasangarrian identifikatutako mugikortasun-premiei erantzuteko ere.
- III. Alderdiek Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun konektatu, kooperatibo eta autonomoa ikertu, garatu eta bultzatzeko ekosistema bat garatu eta sortzeko lankidetzan aritu nahi dutela, garapen teknologikoa eta balio erantsi handiko zerbitzuak bultzatzeko. Hori dela eta, lankidetzarako esparru-hitzaumen hau sinatzea adostu dute (aurrerantzean, «**Hitzarmena**»), eta klausula hauek izango ditu:

KLAUSULAK

1. Hitzarmenaren xedea

BasqueCCAMen helburua da lankidetzak publiko-pribatuko ekosistema bat sortzea, erreferentzia izango den CCAM mugikortasunarekin lotutako teknologiak probatu eta baliozkotzeko eta sortutako datu errealean ustiapenean oinarritutako zerbitzuak garatzeko orduan. Hori dela eta, Hitzarmen honen helburua da zehaztapenak eta baldintzak ezartzea, Alderdiek CCAM probatu eta baliozkotzeko Beasaingo udalerrian lankidetzan egingo dituzten proba errealak eraentzeko.



Beasaingo Udala

2. Lankidetzarako ildoak

Alderdien artean harreman estua eta iraunkorra mantendu eta Hitzarmen honen xedea lortzea errazteko, Alderdiek konpromisoa hartzen dute *I. Eranskinean* jasotako ildoetan lankidetzan aritzeko. Ildo horien edukia zabaldu ahal izango da, Alderdiek hala adosten badute.

Hala, Alderdien arteko lankidetzari esker, CCAM proba errealak Erakunde Laguntzailearen azpiegiturretan egitea dinamizatu ahal izango da, eta hori Alderdientzat mesedegarria izango da, honetarako:

- Teknologia probatzeko eta negozio-ereduak baliozkotzeko interes publikoko proiektuen kontzeptualizazioari laguntza eta euskarria ematea, Alderdiak mugikortasunaren nazioarteko ekosisteman posizionatzeko eta Europako jarduerak erakartzeko.
- Proba errealak egitea berehala, BasqueCCAM elkarteak eta haren bazkideek finantzatuta.
- Erakunde Laguntzailearen ikusgarritasuna eta nazioarteko konektibitatea handitzea.
- Erakunde laguntzaileak zuzeneko eragina izan ahalko du BasqueCCAM elkartearen inbertsio-estrategian, elkarteak bere inbertsioen osagarri gisa lortutako inbertsioez baliatu ahal izateko.
- Estatuko eta nazioarteko enpresak/bezeroak erakartzea.
- BasqueCCAM elkartetik *Back-End Support* laguntza ematea datuak eskuratu eta kudeatzeko plataforma digitalak zehaztu eta implementatze aldera, estandar ireki eta/edo elkarreragileetan oinarrituta.
- Oso maila altuko erantzun bateratua ematea Erakunde Laguntzailearen premiei, irabazi asmorik gabeko erakunde bakar batean. Erakunde horretan, nazioarte-mailan garrantzitsuak diren I+G arloko gaitasunak (adib., Vicomtech), ingeniariartzako eta test/baliozkotze arloetako nazioarteko lidergoa CCAMrentzat (adib., AVL), eta Euskadin kudeaketa- eta monitorizazio-soluzioak ezartzearen inguruko ezagutza handiak (adib., Gertek) bilduko dira, BasqueCCAM elkartearen gutxieneko eta hasierako nukleo gisa, eta beste enpresa-bazkide, I+G erakunde eta erakunde batzuk barne hartzera zabaltzeko asmo argia izango du.
- Proiektu pilotuen errepikagarritasuna ebaluatu eta garatzea, beste udalerri batzuetan ezarri ahal izateko, hala Euskadin nola nazioartean.

3. Hitzarmenaren iraupena eta indarraldia



Beasaingo Udala

Hitzarmen hau goiburuan ezarritako egunean jarriko da indarrean, eta hala jarraituko du 4 urteko hasierako epe batez.

Aurreko apartatuan adierazitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtetarako, edo hitzarmena azkentzea.

4. Jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak

4.1. Hitzarmen hau sinatzen den unean Alderdi batek dituen enpresa-ezagutza edo ezagutza tekniko eskusiboei, jabetza industrial edo intelektualeko eskubideei eta beste sorkuntza batzuei buruzko jabetza eskusiboko eskubide guztiak mantenduko ditu Alderdi horrek. Enpresa-ezagutza edo ezagutza tekniko eskusiboei buruzko jabetza eskusiboko eskubide guztiak, Alderdien jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubideak, eta horien ondoriozkoak edo ondorengoak izanik Hitzarmenaren esparruan erabili edo garatzen diren beste sorkuntza batzuk beroriek sortu dituen Alderdiaren jabetzakoak izango dira soilik. Aldeetako edozeinek aldeztu aurretik bestearen ezagutza bat behar badu hitzarmen honen esparruan erabiltzeko, erabilera-lizentzia bat ematea erabaki ahal izango dute, aldeztu aurreko ezagutza horri buruz, egokitze jotako baldintzen arabera, zeinak Alderdiek sinatutako dokumentu independente batean jasoko diren.

4.2. Hitzarmen honen pean sortutako jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubide guztiak, aurretiazko eskubide eskusiboak erabili gabe, eskubide horiek sortu dituen Alderdiarenak izango dira. Hala ere, lankidetzaren pean Alderdiek elkarrekin jardutean jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubideak sortzen badira, eskubideak Alderdien baterako titulartasunekoak izango dira. Hala, Alderdi bakoitzaren jabetzaren ehunekoa zehazteko, adibideak jartzearen baina mugatzeko asmorik gabe, honako hauek hartuko dira kontuan: alderdi jabeak bakoitzaren ekarpen ekonomikoa, lan-ekarpena eta/edo aldeztu aurreko ezagutza. Alderdi bakoitzak bereak soilik diren materialen jabetza eskusiboko izaera babesteko duen ardura maila berbera izango du baterako sorkuntza horien izaera babesteko.

5. Marken erabilera

Alderdiek beren marken eta izenen gaineko eskubide guztiak izango dituzte, bai eta, oro har, bakoitzaren berezko jabetza industrialaren eta intelektualaren gaineko eskubideak ere, ezertan eragotzi gabe Alderdiek, ados jarrita, eskubide horiek erabiltzea.

Hitzarmen honen babespeko jardueretako edozeinekin lotutako publizitate guztian, Alderdiek beste Alderdiaren izena, marka eta logotipoa sartu edo erabili ahal izango dute. Bi Alderdien marka edo logotipoa eta bereizgarriak bakoitzak besteari ematen



Beasaingo Udala

dion bertsioan soilik erabiliko dira, eta ezin izango dira koloreak, formak, sinboloak edo grafikoak aldatu. Logotipoetan edozein aldaketa eginez gero, markaren titularren eskubideak urratuko dira. Ezin da inola ere interpretatu hitzarmen hau aplikatzean beste Alderdiaren izenari, markari, logotipoari edo jabetza industrialeko edo intelektualeko beste eskubide batzuei buruzko eskubide edo lizentziak ematen direnik.

6. Argitalpenak

Alderdiek eskubidea izango dute lankidetzaren honen eduki ez-konfidentzialak zabaltzeko, txostenak, aldizkari zientifikoetako artikulak, doktore-tesiak edo beste edozein argitalpen mota argitaratuz. Horietan, aipamen berezia egin beharko zaie beti Hitzarmenari eta bi Alderdiek Hitzarmenean duten parte-hartzeari.

Alderdietako edozeinek lankidetzaren honen edukia zabaltzeko, argitaratu edo aurkeztu nahi bada, argitaratu beharreko testua aldeztu aurretik igorri beharko dio beste Alderdiari, berriki eta edita dezan. Alderdi horrek hilabete epea izango du hobetzeko proposamenak jakinarazteko beste Alderdiari. Adierazitako epean erantzunik jaso ezean, testua onartutzat joko da.

Argitaratzen den edukia patente baten edo jabetza industrial edo intelektual babesteko beste edozein moduren bidez babestu ahal bada, Alderdiek ez dute argitalpenik egingo harik eta babes-eskaera hori formalizatu arte. Aurrekoaren arabera, edozein argitalpen geldiarazi ahal izango da, babesa lortzeko izapidetzen ari den prozedura bat indarrean dagoela egiaztatzen bada, argitalpena geldiarazi den egunetik urtebetez gehienez ere. Epe hori igaro ondoren, Alderdiek edozein argitalpen egin ahal izango dute.

7. Alderdien konpromisoak

Bi Alderdiek Hitzarmen honen eduki osoa betetzeko konpromisoa adierazi dute.

Zehazki, bi Alderdiek konpromisoa hartzen dute besteak eskatutako informazio, dokumentazio edo beste edozein elementu emateko, haren ustez beharrezkoak badia hitzarmena behar bezala eta eraginkortasunez betetzeko. Bi Alderdiek adierazi eta bermatu dute legitimitatea dutela informazio, dokumentazio edo elementu horiek besteari bidaltzeko, eta azken Alderdi horrek ez duela erantzukizunik izango hirugarrenen batek sarbide horren ondorioz erreklamazioen bat ezartzen bada. Alderdiek ez dute inolako erantzukizunik izango informazio edo dokumentazio faltsua, zehaztugabea edo osatugabea bidaltzeagatik beste alderdiari eragin dakizkiokeen ondorioen gainean.

BasqueCCAM elkarteak konpromisoa hartzen du Hitzarmenaren helburuak lortzeko bideratutako jardueraren garatzeko eta, bereziki, bi Alderdiek sinatutako *I. Eranskinean* jasotako lankidetzaren ildoei jarraitzeko. Ondorioz, lankidetzaren ikerketa- eta garapen-jardueraren izaera bera eta haren eremu zientifiko-teknologikoa ziurgabeak diren arren, eta ondorioz BasqueCCAM elkarteak ezin dionez Erakunde Laguntzaileari jardueraren horiek azkenean beteko direnik bermatu, BasqueCCAM erakundeak



Beasaingo Udala

desbiderapenak jarraitu eta kudeatzeko mekanismo batzuk ditu, bai eta zenbait kontingentzia-plan ere, Hitzarmenaren helburuekin konprometitzeko.

Lankidetzaren jarraipena egiteko, Alderdien arteko bilerak egingo dira aldizka, eta kasu bakoitzean adostutako komunikazio-mekanismoak erabiliko dira.

8. Konfidentzialtasuna

Hitzarmen honen ondorioetarako, «**Informazio Konfidentzialtat**» hartuko da edozein Alderdien edozein informazio, datu tekniko, sekretu komertzial, fabrikazio-prozedura edo bestelako prozedura (*know-how*), informazio hori hitzarmen hau sinatu aurretik edo ondoren eman den gorabehera, barne hartuta, azalpen gisa soilik, Alderdi batek besteari helarazitako edo Alderdietako edozeinek, Hitzarmena dela-eta, edozein bideetatik zuzenean zein zeharka lortzen dituen informazio guztiak, baldin eta honako hauekin lotuta badaude: negozio-planak, produktu edo zerbitzuak, finantza-aurreikuspenak, patenteak, markak, erabilgarritasun-ereduak eta jabetza intelektual edo industrialeko beste edozein eskubide eta/edo horien eskaerak (erregistratuta egon edo ez), pasahitz informatikoak eta/edo horien iturburu-kodeak, asmakuntzak, prozesuak, diseinuak, grafikoak, datasetak, ingeniaritza, publizitatea edo finantzak.

Konfidentzialtasun-betebeharra behar bezala betetzen dela bermatze aldera, Alderdiek konpromisoa hartzen dute lankidetzaren behar bezala egiteko nahitaez ezagutu behar duten langileek soilik izango dutela informazio konfidentziala eskuragarri. Halaber, Alderdiek konfidentzialtasun-akordioak sinatu beharko dituzte informazioa jaso behar duten hirugarrenekin, Hitzarmenaren esparruan Alderdiek trukaturako informazio konfidentzialak konfidentziala izaten jarrai dezan.

Konfidentzialtasun-betebeharra ez da aplikatuko kasu hauetan:

- i. Informazioa jabari publikokoa da, edo izatera iritsi da, Alderdien esku-hartzerik gabe.
- ii. Informazioaren hartzaileak informazioa transmititu aurretik ezagutzen duelako ziurtasuna du, eta hala frogatu du.
- iii. Hirugarren batek eman dio informazioa modu legitimoan eta ez dio sekretua gordetzea eskatu; beraz, informazioa jakinaraztean ez ditu urratzen konfidentzialtasun-betebeharrak.
- iv. Informazioa bere kabuz garatu du alderdi hartzaileak.
- v. Informazioa alderdi igorlearen alde aurreko baimenarekin jakinarazi da.
- vi. Informazioa legezko xedapen bidez edo legezko eskumena duen agintaritza judizial edo administratiboren baten errekerimenduz jakinarazi behar da. Halakoetan, alderdi hartzaileak berehala emango dio alderdi igorleari jasotako errekerimenduaren berri, azken horrek informazio konfidentziala babesteko eskura duen guztia egin ahal izan dezan.

Konfidentzialtasunari buruzko Hitzarmen honetako xedapenak indarrean egongo dira Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta beste 5 urtez, indarraldia amaitzen denetik kontatzen hasita.



Beasaingo Udala

Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra amaitu ondoren, alderdi hartzaileak eman zaizkion dokumentu konfidentzial guztiak itzuli beharko dizkio beste alderdiari, bai eta horien kopia guztiak ere, eta/edo behin betiko ezabatu edo suntsitu beharko du fitxategi elektronikoetan edo beste edozein euskarritan gordeta duen informazio konfidentzial guztia edo informazio horren edozein zati.

9. Datuen babesa

Bi Alderdiek, bakoitza bere datu pertsonalen tratamenduen erantzule den aldetik, datuak babesteko araudian aurreikusitako xedapenak betetzeko konpromisoa hartzen dute. Europako 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa betez, bi Alderdiak, Hitzarmen hau sinatuta, jakinaren gainean geratu dira eta berariaz onartzen dute Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz elkarri emandako datu pertsonalak kontratu-harremana behar bezala kudeatzeko eta, hala badagokio, zerbitzuak kontratatzeko erabiliko direla.

Hitzarmena gauzatzeko Erakunde Laguntzailea arduradun duen datu pertsonalen tratamendua beharrezkoa bada, dagokion akordioa formalizatuko da aipatutako erregelamenduaren 28.3 artikuluari jarraikiz.

10. Hitzarmena suntsiaraztea

Hitzarmena suntsiarazten bada, indarrrik gabe geratuko da, duten izaeragatik hitzarmenaren indarraldia gainditu behar duten alderdiei dagokienez izan ezik. Hala, Hitzarmen hau legeko arrazoiengatik ez ezik, arrazoi hauengatik ere suntsiarazi ahal izango da:

- i. Bi Alderdiek hala erabakitzen badute.
- ii. Alderdietako edozeinen aldebakarrez suntsitzen badu, besteari 3 hilabeteko idatzizko aurreabisua eman ondoren.
- iii. Alderdietako edozeinek Hitzarmen honetan jasotako legeko edo kontratuko betebeharrak betetzen ez baditu.

Hala ere, Alderdi batek Hitzarmena suntsiarazi nahi badu beste Alderdiak hitzartutakoa ez duela bete alegatuta, Hitzarmena betetzeko eskatu beharko dio aldeztu aurretik, eta 15 egun naturaleko epea emango dio, arazoa konpon dezan. Epe hori igaro eta ez-betetzeari zuzendu ez bada, kontratua bete duen Alderdiak suntsiarazteko ahalmen hori erabili ahal izango du, ezertan eragotzi gabe dagozkion eskubide eta ekintza guztiak. Ez-betetzeari zuzentzea ezinezkoa bada, kaltetuak zuzenean baliatu ahal izango du Hitzarmena suntsiarazteko ahalmena, aurretik beste alderdiari aipatutako errekerimendua igorri behar izan gabe.



Beasaingo Udala

11. Jakinarazpenak

Akordio honi buruzko edozein komunikazio eta jakinarazpen egiteko, bi Alderdiek harremanetarako pertsona eta komunikabide hauek izendatu dituzte berariaz:

BasqueCCAM	Erakunde Laguntzailea
Álvaro Arrúe Lobera Alvaro.arrue@basqueccam.com Donostia (Gipuzkoa), Miramongo Teknologia Parkea, Mikeletegi pasealekua 71 - 3 +34 682749706	Jon Esquisabel del Bosque jeskisabel@beasain.eus Loinazko San Martin Plaza 1, 20200 Beasain (Gipuzkoa) 658 78 01 04

Alderdien artean egiten den jakinarazpen oro idatziz egingo da, mezua behar bezala jasotzen dela bermatzeko.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute beste alderdiari berehala jakinarazteko goian adierazitako harremanetarako datuetan gertatutako edozein aldaketa.

12. Askotarikoak

- Baliogabetze Partziala

Hitzarmen honetan jasotako klausularen bat baliogabea izateak ez die gainerako klausulen eraginkortasunari eta baliozkotasunari kalterik eragingo, Hitzarmenaren muinaren arabera baliogabetutako klausula ezinbestekoa denean izan ezik.

Aurrekoari jarraikiz, eskumena duen edozein jurisdikzio- edo administrazio-organok erabakitzen badu Hitzarmeneko edozein klausula edo horien edozein egoeratako aplikazioa galdaezina, baliogabea edo legez kanpokoa dela, klausula hori Hitzarmenetik ezabatutzat joko da, edo, kasuaren arabera, egoera horretan aplikagarria ez dela ulertuko da, eta horrek ez du eraginik izango Hitzarmeneko gainerako klausulen galdagarritasunean, baliozkotasunean eta legezkotasunean.

Ondorio horietarako, Alderdiek beren gain hartzen dute galdaezintzat, deuseztzat edo legez kontraktatzat jotako klausula ordezkatzeari fedea onez erabakitzeke betebeharra, eta konpromisoa hartzen dute klausularen irismena baliogabetutakoaren ahalik eta antzekoena izateko.

- Uko egitea

Alderdi batek Hitzarmenarekin lotutako edozein eskubide edo errekurso ez erabili edo gauzatzeak ez du esan nahiko eskubideari edo errekursoari uko egin dionik edo hura



Beasaingo Udala

galdu duenik. Eskubide edo errekurtsio bat puntualki edo partzialki Hitzarmenari jarraikiz erabiltzeak ez du eragotziko eskubide edo errekurtsio hori modu osagarrian edo geroago baliatzea. Alderdi batek Hitzarmenaren ez-betetze bati uko egiteak ez du esan nahi ondorengo edozein ez-betetzari uko egiten dionik.

- Ez ordezkatzeta

Hitzarmen honek ez dio ezein Alderdiri beste Alderdiaren ordezkari edo agente gisa jarduteko baimena ematen, eta ez du, *de facto*, baimen hori duela esan nahi. Ezein Alderdik ezin izango du beste Alderdia behartuko duen edozein motatako baieztapenik egin edo konpromisorik hartu, ez eta ekintzarik gauzatu ere, Hitzarmen honetan zehazten den moduan izan ezik.

13. Aplikatu beharreko legeria eta jurisdikzioa

- Aplikatu beharreko legeria

Hitzarmen hau Espainiako legediak arautuko du, eta haren arabera interpretatuko da.

- Jurisdikzioa

Bi Alderdiek konpromisoa hartzen dute Hitzarmen hau garatzean sor daitezkeen edozein desadostasun adiskidetasunez konpontzeko.

Aurrekoa gorabehera, hori ezinezkoa denean, Alderdiek erabaki dute Hitzarmen hau interpretatzeari, betetzeari eta betearazteari dagokionez beren artean sor daitezkeen desadostasun edo eztabaida guztiak Donostiako (Gipuzkoa) Epaitegi eta Auzitegien eskumenpean jartzea, eta legez legokiekeen beste edozein foruri esanbidez uko egitea.

Eta aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, Alderdiek idazpuruan aipatutako tokian eta egunean izenpetu dute Hitzarmen hau, ale bikoitzean eta ondorio bakar baterako.

BasqueCCAM

Erakunde Laguntzailea

Álvaro Arrúe Lobera jauna
BasqueCCAMeko zuzendari nagusia

Leire Artola Ugalde andrea
Beasaingo alkatea



Beasaingo Udala

I. eranskina **Lankidetzarako ildoak**

- **BasqueCCAM** elkartek aktibo dinamizatzaile gisa jardungo du [Beasaingo Udalaren] azpiegituretan benetako CCAM probak egiteko; horri esker, parkeetan mugikortasun jasangarriko ereduak bultzatu eta bere azpiegiturak probako laborategi pribilegiatu gisa erabili ahalko ditu, saiakuntza errealak eta mugikortasun konektatu, kooperatibo eta autonomoko monitorizazio jardueretara bideratuta.
- BasqueCCAMek [Beasaingo Udalaren] mugikortasun jasangarriko planei laguntza eta euskarria eman diezaieke; hain zuzen ere, mugikortasuna ingurune horiek dinamizatzeko funtsezko alderdietako bat da.
- BasqueCCAM berehala has daiteke proba errealak egiten (etorkizuneko kasu industrialak), BasqueCCAM elkartek eta horren bazkideek dagoeneko eskura duten finantzaketarekin (adibidez, EB proiektuak).
- Europako jarduerak posizionatzen eta erakartzen laguntzea bi Alderdientzat.
- [Beasaingo Udalak] **BasqueCCAMen bidez nazioarteko ikusgarritasuna eta konektibitatea lor dezake** nazioarteko *stake-holder* nagusiekin izandako esperientziekin, eta oso esperientzia baliotsua eskuratu dezake aukera paregabeko une honetan. Barne har ditzake, halaber, Teknologia Parkeen Sareak proba horietan lan egitea finantzatzeko baliabide batzuk, zeinak kasu kasu ebatziko diren.
- [Beasaingo Udalak] zuzeneko eragina izan dezake **BasqueCCAMen inbertsio estrategian**; hain zuzen ere, azken horrek aurrekontu handia du kontzeptu horretarako datozen 3 urteei begira eta, hala, **inbertsio horiek ere jaso daitezke**, [Beasaingo Udalaren] berezko inbertsioen osagarri gisa (aurreikusita egonez gero). Unea iristean, akordioak zehaztuko dira Hitzarmen honetatik bereizita, BasqueCCAM elkarteko ekipamenduak, ibilgailuak eta plataforma digitalak lehentasunez erabili eta eskuratzeko.
- BasqueCCAMek Estatuko eta nazioarteko enpresak/bezeroak (adibidez, OEMak, Tier-1, Operadore Logistikoak, LMak...) erakarri ahalko ditu Parke Teknologikoen Sarera, bere zerbitzuak gauzatzeko edo erakunde horiek parke bakoitzean beren zerbitzuak emateko. AVL bazkidea horren erakusgarri da, jadanik: BasqueCCAM garrantzitsua izan da AVL Gipuzkoako Parke Zientifiko Teknologikora erakartzeko eta haren aldeko apustua egin dezan.



Beasaingo Udala

- Oso maila altuko **erantzun bateratua** ematea [Beasaingo Udalaren] **premiei, irabazi asmorik gabeko erakunde bakar batean, BasqueCCAMen**. Erakunde horretan, nazioarte-mailan oso garrantzitsuak diren I+G arloko gaitasunak (adib., **Vicomtech**), ingeniaritzako eta **test/baliozkotze arloetako nazioarteko lidergoa CCAMrentzat** (adib., **AVL**), eta Euskadin **kudeaketa-eta monitorizazio-soluzioak** ezartzearen inguruko ezagutza handiak (adib., **Gertek**) bilduko dira, BasqueCCAM elkartearen gutxieneko eta hasierako nukleo gisa, eta beste enpresa-bazkide, I+G erakunde eta erakunde batzuk barne hartzera zabaltzeko asmo argia izango du.

BEASAINGO UDALAK ESTAL DITZAKEEN BasqueCCAM-EN PREMIAK

Eranskin hau idazteko unean, [Beasaingo Udalak] estaltzeko modukoak izanik BasqueCCAMek dituen premia hauek identifikatu dira. Premiok oso lotuta daude azpiegitura fisiko eta digitaletarako sarbidearekin (PDI, ingeleseko siglen arabera). Bide-sareetara sartzeak eta horietan datuak eskuratzeko eta/edo test- eta baliozkotze-probak egiteko aukerari esker, balio erantsi handiko zerbitzu horiek gauzatu ditzakete automobilgintzaren, mugikortasunaren eta logistikaren arloetako CCAM teknologien garatzaile eta operadoreek. Bereziki, premia hauek identifikatu dira:

Azpiegitura Fisiko eta Digitaletarako (PDI) sarbidea

- [Beasaingo Udalaren] **bide-sarerako sarbidea**: Azpiegitura horietan testak/baliozkotzea egiteko aukera ibilgailuaren ikuspegitik, bidearen berezitasunak kontuan hartuta, eta jarduera horiek behar bezala eta modu seguruan egiteko eskatzen diren baldintzak (araudia, segurtasuna, trafikoaren egoera) betez. Proben helburua CCAMak gaitzen dituzten teknologia berriak baliozkotzea izan daiteke, automobilgintzaren, mugikortasunaren eta/edo logistikaren testuinguruan. Baliozkotzeko saiakuntza horietan saiakuntzaren xede diren ibilgailuen funtzio/funtzionaltasun autonomoak aktibatzen dituzten probak sartzen dira.
- Sentsore-sarerako sarbidea**: Lehendik dauden edo etorkizunean (BasqueCCAMek edo [Beasaingo Udalak]) instalatuko dituzten sentsoreetara sartzeko aukera, CCAM teknologiak probatu eta baliozkotzearen ikuspegitik garrantzia dutenean. BasqueCCAMek dauden sentsoreen sarea osatuko du, bideetan saiakuntza-ahalmena sendotzeko edo hobetzeko, CCAM funtzioak edo aplikazioak eskatzen duen ISAD (Infrastructure Support Levels for Automated Driving) mailara egokitzeko.
- Mugikortasunerako garrantzitsuak diren datu eta azpiegitura digitaletarako sarbidea**: horiek kudeatzeko eta prozesatzeko ardura duten taldeekiko elkarreragina, dauden datuei balioa eransteko, plataformen arteko elkarreragingarritasuna lortzeko eta datuan oinarritutako aukera berriak sortzeko, haien irisgarritasuna, kalitatea, berehalakotasuna eta fidagarritasuna kontuan hartuta.



Beasaingo Udala



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa60b562c-f564-4b02-a4a1-68a2527212e0**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>**